

Herri danborrada Antiguana

Auzoko jaiak ospatuko dituzte egun hauetan antiguatarrek

Donostiar gehientzat gaur gauetan hasiko da festa. Antiguako auzokideak, berriz, aurreko asteburuan hasi ziren motorrak berotzen. Izan ere, auzoko jaiak ospatzen ditu Antigua auzoak egun hauetan, urte askotako tradizioari jarraituta. Horrela, donostiar gehientzat egun bateko parranda besterik ez dena, bi asteko festa bihurtzen da antiguatarrentzat.

Ostiralean hasi ziren jaiak, hilaren hamarrean, eta harrezkero ondo pasatzeko hamaika aitzakia izan dute antiguatarrek eta bisitariak: herri bazkariak, antzerkiak, koadrila jokoak, kontzertuak eta abar. Hala ere, datozen orduetan pilotzen dira, Antiguana ere, ekitaldirik esanguratsuenak. Danbor hotsak nonahi entzun ahal izango dira, eta jai giroak ez du etenik izango 48 orduetan.

Gaur da haurren eguna

Gaur, hilak hemeretzi, haurren eguna ospatuko dute Antiguana. Goizean, eskulanak egiteko parada izango dute auzoko umeek. Arratsaldean, berriz, baserriko jolasak, txokolatada, eta buruhandiak izango dituzte gozabide. Helduentzat, gauerdian hasiko da jaiak, banderaren igoerarekin. Hortik aurrera, hamaika danborrada ikusteko tartea izango da Antiguana.

Baina zalantzarik ez da ekitaldirik nabarmenena, antiguatarrek gehien maite dutena, goizaldeko hiruretan egin ohi den herri danborrada dela. Auzo osoak parte hartzen du, eta danbor moduan era guztietako tramankuluak erabiltzen dituzte. Irudimena besterik ez



GARI GARAIALDE



XOUSE SIMAL

Buruhandiak eta baserriko jokoak gaur arratsaldean

Jai giroa izango da nagusi Antiguana asteburuan, ekitaldi ugari antolatuta baitituzte. Besteak beste, gaur arratsaldeko 19:30etik aurrera, buruhandiak Benta Berriko kaleetan zehar ibiliko dira, txarangen doinuek lagunduta; eta ordu gutxi batzuk lehenago, arratsaldeko 16:00etan, hain zuzen, baserriko jokoak izango dira Jose Maria Sert plazan, Kulki animatzaile taldeak antolatuta.

dute behar. Eta ondo pasatzeko gogoia, noski! Baina hori soberan dute Antiguana.

Bihar, igandea, danborradak jarriko dute jai giroa auzoan. Gazte danborrada izango da goiztiarrena. Goizeko zazpitan irtengo da. Donostiako danborradarik zaharrena da hori, Union Artesanaren ostean. Tradizioak agintzen duenez, 15 eta 30 urte bitarteko gazteek soilik parte har dezakete danborrada horretan.

Gazte danborradari Benta Berriko Lagunak, Ekintza eta Antiguako Kirol Elkartekoek jarraituko diote. Baso Etxeko konpainia izango da azkena, eta hark jaitziko du bandera.

egitaraua

URTARRILAK 19 larunbata

Haurren eguna

11:00 Artisautza azoka, Gaskuina enparantzan.

Eskulan lantegiak umeentzat.

16:00 Baserriko jokoak, Kulki animatzaile taldearen eskutik, Jose Maria Sert plazan

18:00 Txokolatada

19:30 Buruhandiak eta txaranga, Benta Berriko kaleetan zehar

00:00 Banderaren igoera, Sansustene elkarteko danborradaren eskutik

03:00 Herri danborrada, auzoko kaleetan zehar

Urtarrilak 20, igandea

07:00 Gazte danborradaren irteera, Elizako plazatik

12:00 Toka lehiaketa, Txirain elkar-teak antolatuta

17:00 Haur danborradaren irteera. Benta Berriko Lagunak elkartearen danborradaren irteera.

Ekintza danborradaren irteera

18:00 Antiguako Kirol Elkartearen danborradaren irteera

21:00 Baso Etxea elkartearen danborradaren irteera

00:00 Banderaren jaitziera, Baso Etxeko danborradaren eskutik

Txikiren omenez

Antigua Auzoko jai batzordeak bertako kide den Txikiri eskaini nahi dizkio aurtengo jaiak. Izan ere, jaien prestaketan buru-belarri aritu ondoren ezin izango ditu gozatu, gaixotu egin baita. «Batzordearen arima da, eta pena handia hartu dugu», esan du batzordeko kide batek. «Ondo sendatu behar duela eta datorren urtean ezin digula kale egin esan nahi diogu», gaineratu dute batzordekoek.

MERCADAIZ, S.A.

GASOLIOEN ETXEZ-ETXKO
SALMENTA ETA BANAKETA



LEZO
Ipintza k., 47 • Tel.: 943 52 96 00

IRUÑEA
Ferrocarril k., z/g • Tel.: 948 14 38 33

5° PINO Taberna

PINTXO eta BOKATETAN BEREZITASUNA

Sarriegi enparantza, 4 - ☎ 943 426 153 - DONOSTIA

¿Conoces mejor manera de empezar el 2002 que con un Opel nuevo?

1º MES NO PAGAS
2º MES NO PAGAS
3º MES NO PAGAS
4º MES NO PAGAS
+ 5º MES NO PAGAS
6º MES NO PAGAS

6 PRIMERAS CUOTAS GRATIS

✓ En financiaciones a 5 años
✓ 14 cuotas por año*
✓ Desde el 25% de entrada
✓ T.A.E. 4,76%

En los modelos
Agila, Corsa, Astra, Zafira o Vectra
No dejes pasar esta oportunidad y
ven a tu concesionario Opel.

OPEL CREDIT

* 1ª cuota doble en septiembre 2002 y para el resto del préstamo en los meses de diciembre y julio. ** Datos de matriculaciones fuente DGT acumulado enero-diciembre 2001. Oferta GMAC España S.A. de Financiación. Comisión de estudio 2,20%. T.I.N. 7,86%. Cuotas reguladas por Opel España. Oferta no acumulable a otras promociones y flotas. Promoción válida hasta el 28/02/02. La oferta es válida para todos los modelos Agila, Corsa, Astra, Zafira y Vectra. R.B.E. 46/02.

OPEL
Nº1 ventas en gasolina**

Isasti

Avda. de Tolosa, 184. Tel. 943 31 67 11. SAN SEBASTIAN (Guipúzcoa)

SERVICIOS OFICIALES AUTORIZADOS:

A. Hernani


Bº. Acarregui, 25. Tel. 943 55 25 46. HERNANI

T. Arregui

Cº. Urdaneta, 2. Tel. 943 13 14 40. ZARAUZ

Auto-Guria

Pablo Mutiozabal, 1. Tel. 943 36 00 87. LASARTE



MENDIBURU Zerbitzuguneak

Donostiarrak agurtzen ditu

Telefona eta Faxe: 943 45 01 99

